LABURBIRA

2017



MARTXOAK 9 – APIRILAK 12

Euskarazko film laburren zirkuitua

LABURBIRA 2017
EUSKARAZKO FILM LABURREN ZIRKUITUA
Martxoaren 9tik apirilaren 12ra

XIV. LABURBIRA

8 film labur, 77 minutuko emanaldia

FILMAK

- ***Azken Saskia*** *(Oier Fuentes)*
- ***Beti bezperako koplak*** *(Ageda kopla taldea)*
- ***Ihesa*** *(Alejandro Díaz Castaño)*
- ***Elemakarrak*** *(Ibon Iza)*
- ***Jalgi*** *(Eki Pagoaga)*
- ***280º*** *(UDA films)*
- ***EUSPOT*** *lehiaketako spot onenak*
- ***Hileta*** *(Kepa Sojo)*

Eskariak egiteko epea: urtarrilak 31

leire@topagunea.eus

AZKEN SASKIA 2016 (9'40")

Oier Fuentes



2008tik hona hainbat ikus-entzunezko egin ditu honako alorretan: film laburrak, esperimentazioa, poesia, ikus-entzunezkoak eta dokumentalgintza.

Sinopsia: **Azken Saskian**, Nafarroako azken saskigilearen ahotsetik, artisau-munduaren gainbeheraren arrazoiak, izateko modu hori eta kultura horren azken zertzeladak kontsumoaren gizarteak nola irentsi dituen erakusten da. Azken finean, kultura baten desagerpena kontatzen da, azken saskiaren sortze prozesuaren bidez. Jesus Mari Sein, Igantziarra da, eta bizitza osoa eman du saskiak egiten. Garai batean, 30-40 saskigiletik gora zegoen herrian. Benetako industria zen. Baina basoetan pinuak eta herrietan fabrikak etorri ziren... eta, orain, bere azken saskia eginen digu.

Fitxa teknikoa:

Egilea: Oier Fuentes
Protagonista: Jesus Mari Sein.
Ekoizlea: "KATUBI ikus-entzunezkoak eta komunikazio artisaua"

BETI BEZPERAKO KOPLAK 2016 (5'22")

Ageda kopla taldea

Bego Vicarioren koordinaziopean egindako film labur hau, **hogei euskal artista gazteren artean zuzendutako sortze-lan kolektiboa** da. Oso teknika ezberdinekin egindako piezak batzen dira filman eta, era berean, koplen musika eta erritmoei esker, batasuna lortzen da, bertsoei indar eta sakontasun berria emanez.



Sinopsia Santa Ageda bezperako ospakizuna abiapuntutzat hartuz, Maialen Lujanbio bertsolariak genero indarkeriaren salaketa gordina egiten du. Bertsoz bertso, indarkeria matxistaren agerpen ezberdinak salatzen dira, bai eta hura gainditzeko gure ezintasuna ere. Kopla hauek aitzaki hartuta, hogei euskal artista gaztek sortze lan kolektibo bat zuzentzen duten animazio teknika ezberdinak erabiliz.

Fitxa teknikoa:

Zuzendaritza: Ageda Kopla Taldea
Gidoia: Maialen Lujanbio
Ekoizpena: LEKUK KULTUR ELKARTEA, Patxi Azpillaga
Animazioa: Bego Vicario, Ibon Markaida, Kote Camacho, Arrate López Apellániz, Izibene Oñederra, Mariñe Arbeo, Oihana Leunda, Aitor Oñederra, Ximon Agirre, Jon Zurimendi, Xara Agirre, Irantzu Yaldebere, Andere Molinuevo, Iosune Etxarte, Malen Amenabar, Naiara Zuria Mauleón, Zaloa Ipiña, Alots Arregi, Roberto Zabarte
Argazki zuzendaritza: Edu Elosegi
Edizioa: Edu Elosegi
Musika: Xabier Erkizia

IHESA 2016 (15'19")

Alejandro Díaz Castaño

Xixon, 1979. Urteak daramatza Donostian bizitzen. Kazetaritza zinematografikoan dihardu 2000z geroztik, eta egun Caimán, Cuadernos de Cine eta Rockdelux aldizkarientzat idazten du. Gainera, Sevillako Europar Zinema Jaialdiko programazio arduraduna da.

Sinopsia Maitanek Iosu senarrari goiko solairutik datorren itogin bat dagoela esaten dionean, hark igotzea erabakitzen du, arazoa bizikideei jakinaraztera. Bisitaldiak, ordea, espero ez zituen sorpresak ekarriko dizkio Iosuri.

Fitxa teknikoa

Zuzendaritza: Alejandro Díaz Castaño
Gidoia: Alejandro Díaz Castaño
Ekoizpena: SEÑOR Y SEÑORA, Leire Apellaniz
Argazki zuzendaritza: Javier Agirre Erauso
Edizioa: Aritz Moreno
Musika: Koldo Soret
Soinua: Alazne Amestoy
Antzezleak: Koldo Soret, Usua de la Fuente, Maria Elorza, Maider Fernandez, Laura Flaño

ELEMAKARRAK 2016 (4'50")

Ibon Iza Totorika

1974. urtean jaio zen, Igorren. Arte Ederretan lizentziatua da, ikus-entzunezko arloan (1998) eta Irakasle-eskolan diplomatua (2005). Egindako laburmetraiak, "Txakile", "kanteik", "astrapalea", eta aurkezten duen, "elemakarrak". Iragarki eta antzezlan gidoiak ere egin izan ditu; Inge eta English-a begien irisa.

Sinopsia

Natxo elebakarra da eta egunero bere hizkuntzaz zipriztintzen ditu bertako herritarrak eta inguruak, baina Irati, herrian bizi den umetxoa bustitzen ez da ausartzen.
Iratik argi dauka; bere hizkuntza defendatuko du eta medikuarengana doanean ere, bere jarrera argi erakusten du, Iratik eta haren lagunak erabakia hartuta daukate.

Fitxa teknikoa

Gidoia: Ibon Iza, Urtzi Uriarte
Produkzioa: Joseba Rodriguez
Argazki zuzendaritza: Imanol Garcia, Joseba Rodriguez
Kamara: Imanol Garcia
Kamara Laguntzailea: Joseba Rodriguez
Makillajea: Amaia Haranburu, Maite Arrizabalaga

Aktoreak:
Atxio Burgoa, Iñigo Errasti, Iradi Iza, Amaia Haranburu, Izaskun Atutxa, Elizabete Lejardi, Maitane Iza, Sendoa Miranda, Zefe Ziarrusta, Rafa Ugalde, Alaitz Bizkarguenaga, Aroa Atutxa, Maddi Etxenausia, Enara Gallastegi, Jare Iza

JALGI 2015 (11')

Eki Pagoaga

Eki Pagoaga, 1974ean sortua Donibane Lohitzunen. Euskalikasketak Baionako Unibertsitatean. Aldudarrak Bideo eta Kanalduden langile 2007 geroztik, erreportai, dokumental, telebista emankizun eta fikzio egile maila ezberdinetan (gidoilari, errealizadore, editatzaile, teknikari).

Sinopsia

Iratze sortzen da dantzarik ez duen (dantza galdu duen) herrialde zapaldu batean. Haurtzaroan misteriotsu zaizkion arrazoi batzuengatik amak etxea uzten du. Urte batzu berantago estatu zapaltzaileak bere aita erailtzen du. Iratze bakarrik gelditzen da arrotza iruditzen zaion munduan.
Baina oroitzapen batek biziari lotzen du: bere amaren dantzak, bakarrik zirenekoak.

Fitxa teknikoa

Izenburua: JALGI
Proiektu zuzendaritza: Ximun Carrere
Gidoi eta errealizazioa: Eki Pagoaga
Soinua: Anize Ameztoi
Argazki zuzendaritza: Eki Pagoaga
Dantza zuzendaritza: Johañe Etxebest
Produkzioa: Maialen Duguine
Iratze: Ihintza Irungarai

Ekoizlea: Euskararen Erakunde Publikoa – Aldudarrak Bideo

280º 2016 (2'47")

UDA Films Ikus-entzunezko komunikazioa ikasten ari den gazte talde batek osatzen du UDA Films. 18 eta 22 urte bitartean dituzte. Sortzeko ikasten eta ikasteko sortzen dute. Honakoak dira **UDA Films taldeko kideak:** Haizea Azpilikueta, Unai Portilla, Asier Ugarte, Egoitz Diez, Eneko Zuberogoitia, Leire Zarate eta Ane Zuazubiskar

Sinopsia

Gaztea da, baina argi du etorkizunean zer egin nahi duen. Sukaldean aritu nahi du; eta ikasi nahi luke, era profesionalean aritzeko. Irratiak emango dio soluzioa.
Saria: Lekeitioko Zine Bilera 2016 Gazte 22 saria

EUSPOT LEHIAKETAKO SPOTIK ONENAK (2016, 10')

Euspot lehiaketa

2012 urtean sortu zuten Aretxabaletako Udalak, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Arteman Komunikazioak. 2015ean MusicLibrary musika editoreen enpresa batu zen proiektura eta 2016az geroztik Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa ere badu euskarazko spot lehiaketak.

Sormena bultzatzea eta publizitate arloan euskararen erabilera sustatzea dira EUSPOTen helburuak. Horretarako, antolatzaileek urtero gai desberdin bat proposatzen dute eta lehiakideek, nahi duten estilo, teknika eta baliabideak erabilita, erantzuten diote sormen erronka horri. Aurkeztutako lanei ahalik eta hedapen handiena ematen zaie ostean. Bost edizioren ostean, lehiaketa Euskal Herri osora zabaltzeko erronkari heldu diote antolatzaileek.



Spotik onenak

Hamar minututan hamaika spot daude ikusgai, lehiaketaren 5 edizioetan aurkeztu diren spot onenen bilduma bat da. Askotariko gaiak dira eta samur ikusten direnak. Egileen artean daude ikus-entzunetako ikasleak, zaleak eta amateurrak.

EUSPOTen bost edizioetako gaiak

- 2016: Turismoa erakarri Gipuzkoa barnealdera
- 2015: Autoak eta pertsonak (elkarbizitza orekatua)
- 2014: Pintxo-potea eta euskara
- 2013: Sare sozialak eta euskara
- 2012: Merkataritza eta euskara

HILETA 2016 (19´50'')

Kepa Sojo



Laudio, 1968. Zinema zuzendari eta gidoilaria, zinemaren historiako irakasle bezala jarduten du EHUn. Artearen Historian doktorea, frankismo garaiko espainiar zineman eta Luis Garcia Berlangaren obran espezializatuta dago.

Bere ikus-entzunezko lanekin 70etik gora sari irabazi ditu Espainian zein nazioartean, eta Goya Sarietarako izendatua izan da Loco con ballesta film laburrarekin. 2009az geroztik, Gasteizko Cortada Zinemaldia koordinatzen du.

Sinopsia

1925ean, herri txiki batean, bat-batean hil den Ingeren, Mikel Martikorenaren emazte gaztearen, hilbeila egiten ari dira. Herriko indar biziak bertaratu dira, baina familiako patriarka Martinek kezka bakarra dauka: Joanes bere seme ertainaren desagerpena, teologia ikasi ostean, mendian baitabil burua galduta, hildakoen berpiztea predikatzen.



Fitxa teknikoa

Zuzendaritza: Kepa Sojo
Gidoia: Kepa Sojo
Ekoizpena: KUTTUNA FILMAK, Sonia Pacios
Argazki zuzendaritza: Gorka Gómez Andreu
Zuzendaritza artistikoa: Idoia Esteban
Edizioa: Josu Trocaola
Musika: Fernando Velázquez
Soinua: Ion Arenas
Efektu bereziak: Unai Guerra
Antzezleak: Kandido Uranga, Itziar Atienza, Mikel Losada, Martxelo Rubio, Jose Kruz Gurrutxaga, Josean Bengoetxea, Asier Hormaza, Jose Ramón Soroiz, Susana Soleto, Gorane Chueca